

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: **Pentsamendu kritikoa**

Ikasketa Planean adierazitakoa: Lan munduaren gizarte, lege eta ekonomia errealitatea kritikoki interpretatzea, graduan eskuratutako ezagutzak eta datuak erabilia.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. maila: Pentsamendu kritikoa gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Galderak egitea inguruko harreman soziolaboralari buruz, haren gizarte ikuspegia bilatuz, eta hari buruzko eztabaidetan aktiboki parte hartzea, gizartean harreman horri buruz nagusi diren interpretazioei buruz galdetuta eta norberaren eta besteen erabakien ondorioak aztertuta.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Jarrera kritikoa du errealitatearen aurrean.	Bere judizioak eta balorazioak egiten ditu, errealitateari buruzko bere gogoeta sistemikotik abiatuz, aintzat harturik haren gizarte ikuspegia eta haren oinarrian dagoen eraikuntza eta legitimazio prozesua.
Bereizi egiten ditu errealitatea eta haren inguruan egiten diren eraikuntzak, interpretazioak, iritziak eta balorazioak.	Gizarte ikuspegitik aztertzen ditu bere inguruak erakusten dizkion interpretazioak eta erabakiak, aintzat harturik horien eraikuntza eta legitimazio prozesua.
Era aktiboan parte hartzen du eztabaidetan.	Eztabaidetan, erreferentzia puntu eraikitzailea da besteentzat.
Gai da aurreikusteko gizarte edo lan erakunde bakoitzaren interes eta helburuetatik eratortzen diren inplikazioak eta ondorioak, baita erakunde horietan hartzen edo inposatzen diren erabaki eta proposamenetatik eratortzen direnak ere.	Garrantzi handia ematen dio bere inguruko instantzia kolektibo edo indibidualetatik datozen erabaki eta proposamenen ondorioen egiazko balorazioa egiteari.
Gogoeta egiten du errealitatearen egituratze eredu bakoitzetik eratortzen diren baldintzatzaile eta efektuei buruz, eta bere erabakiek inguruan duten ondorioei buruz.	Gizarte eta lan antolakuntza modu bakoitzaren eragina eta ondorioak ezagutzen eta horiei buruz gogoeta egiten saiatzen da, eta kontuan hartzen ditu besteak bere jarrera garatzeko orduan.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Lan Arloko Soziologia (koordinazioa), Sozietateen Zuzenbidea, Zuzenbide Zibila, Konstituzio Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea eta Lan Arloko Psikologia.

4. ZEREGINAK

- Eztabaidak, laburpenak eta txostenak egitea (bakarka eta taldeka); galdetegiak osatzea; errealitatean gertatzen diren hainbat egoeraren abantailak eta eragozpenak aztertzea eta haiei buruzko gogoeta egitea; ikasgelako lanen ahozko aurkezpenak.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan Arloko Soziologia irakasgaiak (gaitasuna koordinatzen du) kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeke orduan erabiltzen du.

Lan Arloko Soziologia:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Gaitasuna honako hauen bidez ebaluatzen da: talde eztabaida gizarte eta lan arloan interesa duten gaiei buruz, txosten-laburpen idatzi baten bidez lagunduta; gizarte edo lan arloko gaiei buruzko talde lana egitea eta ahoz aurkeztea; gizarte eta lan arloko testuei buruz gogoeta eta balorazioa egiteko galdesorta bat lantzea; gizarte eta lan gaiei buruz ikasgelan landutako kontzeptu eta lanen kontrol eta formulazio argia.

Gaitasunaren adierazle guztiak ebaluatzen dira; adierazle bakoitza guztizkoaren % 20arekin. Deskribatutako jarduera multzoa nahitaezkoa da etengabeko ebaluaziorako, eta irakasgaiaren amaierako kalifikazioaren % 25 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko zereginak dira: merkatuan diharduten merkataritza sozietateen edo ekonomia sozialeko sozietateen eredu juridikoen errealitateak planteatzea, bakoitzaren abantailak eta eragozpenak detektatzeko taldean, gizarte testuinguruaren arabera aurkeztuak; inguruari gehien egokitzen zaion ereduari buruz eztabaidatzea; bakarka, gizartearen eta haren ingurune ekonomikoaren arteko harremanak erregulatzeko esparru juridiko egokiena era dezakeen araua hautatzea, eta aukeraketa arrazoitzea, ebaluazioaren eta gogoetaren bitartez.

Adierazle bakoitza guztizkoaren % 20az baloratzen da, eta gaitasuna irakasgaiaren % 10 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Zuzenbide Zibila, Konstituzio Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea eta Lan Arloko Psikologia irakasgaiak nahita diseinatuta daude gaitasuna garatzeko, edo aukera ematen dute gaitasun hori praktikan jartzeko.

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



2. maila: Pentsamendu kritikoa gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Harreman soziolaboraletan jokoan dauden klaseen interes ekonomiko-politikoak identifikatzea eta analizatzea (gatazka edo adostasun harremanak), botere publikoen esku-hartzeari eta esku-hartze horrek gizarte klaseentzat dituen ondorioei buruzko norberaren eta besteen iritzien koherentzia aztertuz.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Harreman soziolaboralen azpian dauden interesak bereizten ditu.	Baldintzatzaile mediatiko eta sozialetatik harago, argi bereizten ditu langile klasearen interesak eta kapitalarenak.
Bere iritzia eta balorazioak formulatzen ditu.	Bere iritzia eta balorazioak defendatzen ditu uste osoz.
Kontuan hartzen ditu besteen iritzia.	Kontuan hartzen ditu besteen ideiak bere arrazoibide eta iritzietan.
Iritziak ematen ditu barne irizpideen arabera (barne tinkotasuna, koherentzia, fidagarritasuna...).	Argudiatze baten koherentzia aztertzen du, erreferentzia eredu edo patroi bati dagokionez.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Era aktiboan parte hartzen du eztabaidetan.	Bultzada ematen dio eztabaidari, bere ikuspegia emanez, gogoeta aberastuz.
Gizarte klase bakoitzaren interesak bereizten ditu.	Pertsonen eta taldeen eskubideak defendatzen ditu, posizio eta interes partikularren aurrean.
Balio judizioen edo presupostu ideologikoen argudio ustez teknikoak bereizten ditu.	Pertsonen eta taldeen eskubideak defendatzen ditu, posizio eta interes partikularren aurrean.

3. GAITASUNA EBALUATZEKO ETA KALIFIKATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Pentsamendu kritikoa gaitasuna ebaluatzen eta kalifikatzen duen irakasgaia Sindikatu Zuzenbidea da (gaitasuna koordinatzen du).

Beren ebaluazio sisteman gaitasuna kalifikatu ez arren hura garatzeko lagungarriak diren irakasgaiak: Enpresen Kudeaketa I, eta Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa.

4. ZEREGINAK

Kasu praktikoak eta gai teorikoak aztertzea eta aurkeztea, bakarka edo taldean.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Sindikatu Zuzenbidea irakasgaiak (gaitasuna koordinatzen du) kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeke orduan erabiltzen du.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Sindikatu Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez. Gaitasuna ebaluatzeko, kasu praktikoak aztertzen eta aurkezten dira, eta gai bat lantzen eta aurkezten da.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 30 da.


Ikasleek Sindikatu Zuzenbidea irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunari dagokion menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduako gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboek argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

3. maila: Pentsamendu kritikoa gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Ematen diren iritzien egokitasunari buruz argudiatzea eta norberaren jarreraren koherentzia aztertzea, horien oinarrian dauden printzipio eta balioetan oinarrituta.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Bere iritzia oinarritu eta argudiatzen ditu.	Bere argudiatze gaitasunarekin, besteek beren ideiak edo sinesteak zalantzan jartzea lortzen du.
Judizio kritikoen azpian dauden ideiak, printzipioak, ereduak eta balioak identifikatzen ditu.	Iritziak argudiatzen ditu, eredu teorikoetatik eta haien oinarrian dauden balioetatik abiatuta.
Iritziak adierazten ditu kanpo irizpideen arabera (erabilgarritasuna, bideragarritasun, balioa...).	Argudioen eta proposamenen egokitasuna eta garrantzia aztertzen ditu, irizpide egokien bitartez.
Koherentziaz eta erantzukizunez jokatzeko du bere erabakietan eta jokamoldean.	Bere balioekiko koherentzia bilatzen du bere jarreran.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Zuzenbide Prozesala (koordinazioa)

4. ZEREGINAK

Kasu praktikoak azaltzea eta defendatzea, eta amaierako proba egitea.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Zuzenbide Prozesala (gaitasuna koordinatzen du) eta Laneko Harremanen Teoria eta Egitura irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute. Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeke erabiltzen da.

Zuzenbide Prozesala:

Ikasturtearen hasieran adierazten den moduan, irakasgaiak adierazle guztiak ebaluatzen ditu (adierazle bakoitzari % 25 dagokio), kasu praktikoak lantzea, azaltzea eta defendatzea eginkizun duten zereginen bitartez, baita amaierako azterketa baten bidez ere (azterketa horretan, irakasleak emandako kasu edo epai bati buruz emango dituen argudioak arrazoitu eta justifikatu beharko ditu ikasleak). Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisu globala % 10ekoa da.

Laneko Harremanen Teoria eta Egitura:

Irakasgaiaren ikasgela birtualean (Moodle plataforma) argitaratutako irakasgaiaren gidaliburuak irakasgaia ebaluatzeke moduak adierazten ditu, baita *pentsamendu kritikoa* gaitasuna ebaluatzeke moduak ere. Funtsean, irakasgaiaren gidaliburuko edukiei buruz formulatutako galdera zerrenda bati era interpretatiboan eta lankidetzan (lan taldeak)



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea erantzutean datza, gero bateratze lana egin, eztabaidatu eta publikoaren erantzunak kontrastatzeko. Adierazle bakoitzak pisu berbera du gaitasunaren ebaluazioan (% 50), eta gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisu globala % 10ekoa da.

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Azaldutako korrante teorikoei buruzko diskurtso koherenteak lantzen ditu.	Kontzeptu garrantzitsuenak bereizi eta kontrastatzen ditu korrante teorikoen artean.
Era aktiboan partekatzen ditu kritikak eta eztabaida teorikoak ikaskideekin eta irakaslearekin.	Gai da eduki teorikoei buruzko bere interpretazioak zuzentzeko eta/edo ikaskideen edo irakasleen ekarpenekin osatzeko.

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunari dagokion menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzekeo tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



4. maila: Pentsamendu kritikoa gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Ekonomia, lan eta gizarte errealitatearen ezagutza maila egokia izatea, ondo oinarritutako kritikak planteatzeko eta planteamendu horiek ondo egituratutako idatzi batean ipintzeko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Ekonomia eta lan errealitatearen analisi kritikoan erabiltzen diren paradigmatik eta kontzeptuak ezagutzen ditu.	-Errealitate horren analisisan, ondo aukeratzen ditu egileen erreferentziak. -Ondo oinarritutako argudioak lantzen ditu, ikuspegi kritiko batetik.
Ekonomia eta lan errealitatearen analisi kritikoan erabiltzen diren paradigmen ideiak eta kontzeptuak idatziz zuzen adierazten ditu.	-Gai da bibliografia bat ondo egiteko. -Testuan bertan erreferentzia egokiak zuzen aipatzen ditu.
Iritzi original oinarrituak ematen ditu.	-Ondo oinarritutako proposamenak egiten ditu.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Globalizazioa eta Lan Mundua irakasgaiak gaitasun hau koordinatu eta ebaluatzen du.

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

- Bakarkako lana (irakasgaiko lan bati buruzko saiakera).
- Irakasleak gai bakoitzerako aukeratutako testu laburren bakarkako iruzkina.
- Liburu baten laburpena eta iruzkina (hainbat libururen artean bat aukeratuta).

5. EBALUAZIO SISTEMA

Globalizazioa eta Lan Mundua irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen du. Haren ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturteko lehen eskolan ematen da ezagutzera.

Adierazleak 2. atalean aipatutakoak dira.

Zeregin hauek ebaluatzen dira:

- Bakarkako lana (% 60).
- Irakasleak gai bakoitzerako aukeratutako testu laburren bakarkako iruzkina (% 15).
- Liburu baten laburpena eta iruzkina (% 25).



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren nota osoaren % 20 da.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunari dagokion menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



GRAL (4. maila): Pentsamendu kritikoa gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Ematen diren iritzien egokitasunari buruz argudiatzea eta norberaren jokabidearekin kontrastatzea, horien oinarrian dauden printzipio eta balioetan oinarrituta.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Bere iritziak oinarritu eta argudiatzen ditu.	Bere argudiatze gaitasunarekin, besteek beren ideiak edo sinesteak zalantzan jartzea lortzen du.
Judizio kritikoen azpian dauden ideiak, printzipioak, ereduak eta balioak identifikatzen ditu.	Iritziak argudiatzen ditu, eredu teorikoetatik eta haien oinarrian dauden balioetatik abiatuta.
Iritziak adierazten ditu kanpo irizpideen arabera (erabilgarritasuna, bideragarritasuna, balioa...).	Argudioen eta proposamenen egokitasuna eta garrantzia aztertzen ditu, irizpide egokien bitartez.
Koherentziaz eta erantzukizunez jokatzeko du bere erabakietan eta jokabidean.	Bere balioekiko koherentzia bilatzen du bere jokabidean.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

GRAL

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Elkarrizketak egitea tutorearekin, memoria idazteko jarraipen prozesuan, pentsamendu kritikoa agerian utziz, aztergaiari egokitutako ikuspegi espezifikoetatik.

Aztergaiari dagokionez jarrera kritikoa eta konpromiso zehatza islatuko dituen GRALa idaztea.

GRALa epaimahaiaren aurrean azaltzea, eta epaimahaiaren galderei erantzutea, agerian utziz aztergaiari dagokionez pentsamendu eraikitzaile eta aberasgarria.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Elementu hauek identifikatu behar dira:

- a. Adierazle guztiak ebaluatzen direla.
- b. Gaitasuna ebaluatzeako sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen dela.
- c. Gaitasuna ebaluatzeako erabiltzen den/diren zeregina/ak (labur).
- d. Gaitasunak GRALaren notan duen pisu globala.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

GRAL prozesuaren balorazio txantiloia, tutoreak beteta.

Tutoreak eta epaimahaiak eginiko GRALaren amaierako txosten idatziaren balorazioa.

Epaimahairen aurrean eginiko GRALaren defentsaren eta azalpenaren balorazioa.